

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Ziortza-Bolibar

Aurkibidea

Udalerria: Ziortza-Bolibar

Sarrera



Lea-Artibai eskualdean eta Bizkaiko ekialdean eta barnealdean dagoen udalerria da. Iparraldean Aulesti, hegoaldean Mallabia, ekialdean Markina-Xemein eta mendebaldean Munitibar ditu mugakide. Ziortzako monasterioak eta Simon Bolivar askatzailearen abizenaren eta familiaren jatorria berton dagoenez, ospe berezia lortu du herriak. Urte askoan Markina-Xemeinen auzo izan ostean, 2004. urtean berriro ere herri inpendiente izatea lortu zuen.

- **Biztanleak:** 401
- **Euskaldunak:** %90,77

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **37**
- Zintak: **37**
- Pasarteak: **24**
- Transkribatutakoak: **4**
- Audioak: **4**
- Bideoak: **20**

Proiektuak

- Ahaztuen Oroimena
- Alfabetatzerako Langaia. Bizkaieratik Baturantz
- Antxinako Berriz. Bizimodua eta ohiturak
- Dialektologia-EHU
- Diasporako Ahotsak
- Ermua eta Eitzako euskara
- Ermuko Ahozko Ondarea
- Ermuko eta Mallabiko "Drogetenitturri" aldizkaria
- Euskal Herriko txori eta animaliak
- Lea-Artibaiko ahotsak
- Markina-Xemeingo ahotsak
- Markina-Xemeingo hezkuntza publikoa (1844-2025): hazitik lorera
- Zaldibarko ahotsak

Hizlariak

Alberto Txirtu

Bolibarren jaioa. "Txirtu" tabernaren jabea da. Ehiztari amorratua, elkarriketa interesgarria egin zitzaion gai horren gainean: ehiza, txoriak, natura...

Mari Karmen Arriaga Bustindui (1934)



Iruzubieta auzoko Armola baserrikoa. Ahaztuen Oroimena taldekoek egin zioten elkarriketa, gerrako kontuak jasotzeko.

Ibon Arriaga Garetxana (1979)

Ziortza-Bolibarko Ikaztegi baserrian jaiotakoa. Ziortza-Bolibarko eskolan eta Bekobentan ikasi zuen.

Socorro Arriaga Olano (1944)

Iruzubieta auzoko Armola baserrikoa.

Javier Arrieta Arriaga (1945)



Bolibarren jaioa, ama bertakoa zuen eta aita Munitibarrekkoa. Jaixo baserrian bizi ziren. Hiru anaietan gazteena zen Javier eta hirurak joan ziren Ameriketara. 17 urterekin pinuak botatzen egin zuen lana eta 21ekin soldadu egon zen bi urtez. 1970ean Emmettera joan zen (Idaho), Highland konpañiara artzain. Bost urteren ostean zerrategi batean hasi zen (Boise Cascade) eta 26 urte igaro zituen bertan. Anjy emaztea, Mountain Homen jaioa baina euskal jatorrikoa zen (1980an ezagutu zuten elkar) eta euskaraz hitz egiten zuen. Bi alaba izan zituzten. Herri kirol eta mus zalea da eta kide aktiboa Boiseko euskal etxean.

Nikasio Arriola Arriola (1922)



Zeinka-Zearregi auzoko Luzar baserrikoa. Ahaztuen Oroimena taldekoek egin zioten elkarriketa, gerrako bizipenak jasotzeko.



Esther Astorkia Andrinua (1962)

Ziortza-Bolibarko Zeinka-Ziarregi auzoko Zelai baserrikoa. Zeinka-Ziarregiko eskolan ikasi zuen 1968tik 1974ra arte.



Alesander Azkaiturrieta Gandiaga (1978)

Ziortza-Bolibarko. Haur Hezkuntza Ziortza-Bolibarko eskolan egin zuen eta OHO Bekobenta eskolan.



Jose Jabier Azumendi Jaio (1968)

Zeinka-Ziarregiko eskolan ibili zen 1972-1975 bitartean, eta Bekobentan 1975-1983 bitartean.



Jose Egiguren Anitua (1918-2015)

Bolibarko Ormatorre baserrikoa. Ahaztuen Oroimena taldekoek egin zioten elkarrizketa, gerrako bizipenak jasotzeko.



Lourdes Egiguren Anitua (1930)

Zeinka-Ziarregiko eskolan ikasi zuen 1938tik 1944ra.

Karmelo Egurrola Onaindia (1934)

Bolibarko Agarre baserrikoa.



Nerea Foruria Gerrikabeitia (1979)

Ziortza-Bolibarko Garate baserrian jaiotakoa. Bekobentako ikaslea izan da 1984tik 1992ra.



Guadalupe Fundazuri Bikandi (1945)

Ziortza-Bolibarko Orma baserrikoa. Zeinka-Ziarregiko eskolako ikaslea 1951tik 1959ra



Olaia Garitagoitia Zabala (1993)

Bekobentako ikaslea HHn, LHn eta DBHn.

Javier Gerrikabeitia Meabebastarretxea (1943)



Iruzubieta auzoko Iñurri baserrikoa, ama bertakoa zuen eta aita Munitibarkoa (1917an Ameriketara joan zen artzain, Grand Viewra, Idaho). Hiru anaitan erdikoa, Iruzubietan ibili zen eskolan 12 urtera bitarte eta ondoren Markina-Xemeinen. 16 urterekin tailer mekaniko batean egon zen laguntzaile, Ondarroan. Tornero lana egin zuen ondoren Markina-Xemeinen, Kurtzelegin. 19 urterekin, 1963an, Javier Buffalora (Wyoming) joan zen arrantxo batera lanera, hiru urteko kontratuarekin. Ondoren Euskal Herrira bueltatu zen eta soldadutza egin zuen. Ameriketa joan zen berriro, baina Grand Viewra (Idaho), artzain; "campero" ibili zen. Urte eta erdiren ostean Goodingen (Idaho) hasi zen lanean, kamioiarekin belarra garraiatzen. Amerikar batekin ezkondu zen eta bi seme-alaba izan zituzten. Twin Fallseko arrantxo batean ere egin zuen lana, baina urte gehien soldatzaile eman ditu (eraikuntzan batez ere, baina baita base nuklear batean eta urre-meatzeetan ere). 1976tik Salt Lake Cityn (Utah) bizi da.



Goretti Gerrikabeitia Zabala (1954)

Zeinka-Ziarregiko eskolako ikaslea izan zen.



Mari Karmen Gerrikagoitia Urionaguena (1926-2015)

Ziortza-Bolibarko Alegrixekoa. Lekaimea. Gerrako kontuak jasotzeko egin zioten elkarrizketa Ahaztuen Oroimena taldekoek 2014an.

BOL-006 Hizlari ezezaguna

Bolibarreko emakumea. 1985eko uztailan egin zitzaion elkarriketa hau HABEko "Alfabetatzerako Langaia". Bizkaieratik Baturantz" liburuaren prestaketarako.

Antoni Idoeta Zelaia (1926)



1926an jaio zen Zeinka auzoko Goiko "Goittixe" baserrian eta bertan bizi izan da beti. Ama bertakoa zuen eta aita Zabale baserrikoa. Bere ahizpa [Katalin](#)ekin batera egin zitzaion elkarriketa. Baserriko beharretan aritu izan da beti.

Katalin Idoeta Zelaia (1924-2017)



1924an jaio zen Zeinka auzoko Goiko "Goittixe" baserrian. Ama bertakoa zuen eta aita Zabale baserrikoa. 3 ahizpetatik zaharrena izan zen. Umetan Bolibarko eskolara joan zen. 17 urterekin Markinako Onaindia botikara joan zen neskame eta bertan egon zen 7 urtez. Azkenik Markinara ezkondu eta bertan bizi izan da ordudanik. Bere ahizpa [Antoni](#)ekin batera egin zitzaion elkarriketa.

Dolores Irusta Azkaiturrieta (1925)



Bolibarren (Ziortza-Bolibar egun) jaio zen 1925ean, Irustaneko etxean. Ahaztuen Oroimena taldekoek egin zioten elkarriketa 2011n, gerrako kontuak jasotzeko ([ikusi euren webgunean](#)).

Jon Jaio Arriaga (1967)



Ziortza-Bolibarko Arta auzokoa. Ziortza-Bolibarko eskolan ibili zen, eta gero Bekobenta eskolako ikaslea izan zen 1974tik 1980ra. [Oskar Jaio](#), anaiarekin batera egin zitzaion elkarriketa.

Oskar Jaio Arriaga (1966)



Ziortza-Bolibarko Arta auzokoa. Ziortza-Bolibarko eskolan ibili zen. eta gero Bekobenta eskolako ikaslea izan zen 1974tik 1977ra. [Jon Jaio](#) anaiarekin batera agertzen da elkarriketan.

Klaudio Jaio Onaindia (1937)



Ziortza-Bolibarren jaio zen, Alegria baserrian. Ama baserrikoa bertakoa zuen eta aita Agarrekoa, Ziortza ingurukoa. Zortzi neba-arrebatatik laugarrena zen. Ziortzakoa izan arren, umetatik ezagutu zuen Markina, bertako fraideen eskolan ikasten zuen-eta. Geroago, Markinako Esperanza arma-fabrikan hasi zen lanean eta ostean Eibarko Alfa fabrikan ibili zen erretiratu zen arte. Baserriko bizimoduaz hitz egin genuen berarekin egon ginenean, eskolako kontuez eta soldadutzakoez, bestek beste.

Andres Lejardi Ibaibarriaga Andy (1939)



Gosta baserrian jaioa, aita bertakoa zuen eta ama ere herrikoa. Zazpi senidetan bosgarrena, Andres Bolibarko eskolan ibili zen 14 urterarte eta ondoren Markinan, ajustadore ofizioa ikasten. Esperanza y Compañía tailerrean egin zuen lana lau urtean. Ondoren soldadu egon zen Bilbon eta Gasteizen, eta urte horretan aita hil zitzaien, istripuz. Anaia bat Ameriketara zeukan, Hagermanen (Idaho) artzain, eta bera ere hara joan zen 1963an. Ardi-lanetan sei urte igaro ostean, behi hiltegi batean ibili zen lanean 14 urtean, Goodingen (Idaho). Azken urteak Goodingeko gormutuen eskolan egin zituen, garbiketan, mantenimenduan eta autobus gidari. Emakume amerikar batekin ezkondu zen eta alaba bat izan zuten, Cristina. Goodingeko euskal etxeko sortzaileetako bat da Andres.

Fernando Lejardi Olabe (1973)



Bolibarren jaioa, guraso biak bertakoak zituen (ama kaletarra eta aita baserrikoa). Bi arreba zaharrago ditu. Markina-Xemeingo pilota eskola batean ibili zen eta zesta puntako pilotari profesionala izan da. 18 urterekin Mexiko DFra joan zen eta ia lau urte egin zituen han. Gero Tampara (Floridara); urtebete egin zen eta hurrengo 17 urteak Miamin (Florida) eman zituen zestan jokatzeko. Ez zuen frontoien loraldia ezagutu, gainbehera ekarri zuen grebaren ondorengo urteak izan zirelako. 2003an bere emaztea izango zena ezagutu zuen Elkon (Boisen bizi zen osaba bat bisitatzerako joan zen Fernando, eta handik Elkoko festetara): Mercedes Mendive, Elkon jaioa baina jatorri euskaldunekoa; alaba bat izan zuten. 2015etik Elkon bizi dira; Fernando kamioilari ibili da azken urteetan.

Liria Lejardin

Bolibarkoa. 1990an egin zitzaion grabazioa. Grabazioan bere ama ere azaltzen da, Bolibarko Zeinke auzokoa.

Bittori Muniozguren Larrañaga (1917-2012)



Etxebarriko Elordi baserrian jaio zen 1917an; Ziortza-Bolibarko Iruzubietako auzoko Barrenan bizi. Aitona sasi-albaitari ezaguna izan zen inguruetan. Horri buruzko kontuak kontatzen ditu grabazioetako batean. Bigarren grabazioa gerrako kontuak jasotzeko egin zioten Ahaztuen Oroimena taldekoek 2012an ([ikusi euren webgunean](#)).

I



Maite Olabe Meabebasterretxea (1977)

Bekobenta eskolan ikasi zuen OHO amaitu zuen arte.



Santi Olabe Meabebasterretxea (1967)

Ziortza-Bolibarko eskolan ibili zen, eta gero Bekobenta eskolako ikaslea 1976tik 1980ra.

Higinia Solozabal Larruskain *Plazakodendakua* (1936)



Ziortza-Bolibarko Anittugoiko baserrian jaio zen 1936an. Eskolara joatea gustuko zuen; handik etortzerakoan ganadu bila joatearena bere ardura zen. 11 urterekin Ermura etorri beharrean topatu zen, gurasoak plazan denda bat jarri zutenean. Bordatzen eta josten ikastera joaten zen. Han berarekin ikasle zeudenen harridurarako, etorri berria izanda, bertakoak baino hobeto zekizkien herriko jendearen izen eta abizenak; bai, ba, dendan genero guztia apuntera ematen zen eta! 16 urterekin, Murgiako ikastetxe batean egon zen ahizpa txikiarekin batera, bere kontabilitate eta kultura orokorreko ezaguera hobetzeko asmoz. Alberto González Atxa eibartarrarekin ezkondu zen eta lau seme-alaben ama da. Bere ama Maria hil zenean, frontoi osteko "Maria Anitturen" denda bere kargupean geratu zen harik eta jubilatzen arte. Gaur egun Bolibarren bizi da, bere jaiotetxean. Hizkera: bolibartarrera.

Inmaculada Solozabal Larruskain *Plazakodendakua*
(1938)



Ziortza-Bolibarko "Anittu-Goiko" baserrian jaio zen 1938an, eta Maria eta Jose Joakinek izandako lau alaben artean txikiena izan zen. Eskolara Iturretako auzo-eskolara eta Iruzubietako Bolintxora joaten zen egunero, kale egin barik. 14 urte betetakoan, Murgiako eskolan egon zen barneko ikasle gisa, "Cultura general" eta "contabilidad" ikasten ahizpa batekin batera. Eibarren Dibujoa, Margoketa eta Damaskinatua ikasi ostean, kanporako grabatzen hasi zen: ezpatak, eskumuturrekoak, hautsontziak, krisketak, mahuka-bikiak... mailukotsean ematen zituen egunak. 1960tik aurrera, familiaren negozioa hartu zuen (ordura arte jateko denda izandakoa) eta liburu-denda bihurtu; negozioa bere kargu gelditu zen. Grabazioa egin zitzaionean Ermuan bizi zen.

Puri Solozabal Larruskain *Plazakodendakua*
(1930-2011)



Ziortza-Bolibarko "Anittu-Goiko" baserrian jaio zen 1930ean. Jose Joakin eta Mariak izandako lau alabetatik bera izan zen nagusia. Neskatook lur aldapatsu eta gogor haietatik atera guran, eta eurak eduki ez zuten eskola emateko ilusioarekin, Ermuko plazan eskualdatzeko zegoen denda bat hartzea erabaki zuten. 1947ko iraila zen. Puri Eibarko akademia batean kontabilitatea ikasten hasita zegoela eta baserritik etorrira 6 hilabete besterik ez zeramala, bizkarrezur-muinari erasotzen zion infekzio baten ondorioz, gerritik beherako mugikortasun barik geratu zen oheari lotuta. Umetan eta gaztetan ikusi eta entzundakoak, gaur bertakoak balira bezala ditu gordeta oroitzapenean. Hizkera: bolibartarra.

Trinidad Totorikaguena Jaio (1902)

Ziortza-Bolibarko Arta auzokoa izatez. Ermuko Urkobekoa baserrira ezkondu zen. 43 urterekin alargundu eta hiru ume txikirekin geratu zen.



Maite Ugarteburu Uberuaga (1973)

Ziortza-Bolibarko Elorriaga Unzeta baserrikoa. Bekobenta eskolan ikasi zuen OHO amaitu zuen arte.



Emeteria Zuazo Zarrabe (1921)

Bolibarren jaioa. Hamalau urtera arte bertan ibili zen eskolan. 22 urterekin joan zen Berrizera bizitzera, Okako zentralaren ardura zuten eta. Berrizko antzinako kontuak jasotzeko egin zioten elkarrizketa, 84 urte zituela.

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

1. Herria, azpiegitura

1.1. Ziortza

- **Hizlaria(k)**: Hizlari ezezaguna, BOL-006
- **Elkarrizketatzailea(k)**:
- **Erref**: BOL-006/001
- **Iraupena**: 0:00:47. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:00:47
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Gaia(k)**:
Herria, azpiegitura
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Bideak
- **Laburpena**: Done Jakue bidea egiten zutenak Ziortzatik pasatzen ziren.

Transkripzioa

- Ta emetik gora goisela, kamiñon gora, esotzut -esateuat- elixie amaitzen da, o sea, elixien atzien Upetei sala da. .. erreta. Ta klaro arek ormak... eta segidu aurrera ta beste Upetei , eta aurrera Ospitxela. Ta an, Ospitxalien -selan san «camino de Santiago»-an gelditxesitxuan, ba, amen paseta sienak gaba eitxen an... -bai ba, «Camino de Santiago»tik etosena' pa, se esatenajan ba- da gero an gaba einje, ba, es taki'pa nik andik gora, eee, Ontzuragatxi' sier, an be selan «Camino de Santiago»k segitzen daben andik aurrera... Da an Ziortzan jasak ate bi: bata beien ta besta goixen, da barruen «korrue» esatejakona. Da an pasaeise etxe danetik elixa', aitzeustek?

2. Baserria

2.1. Feriara

- **Hizlaria(k)**: Hizlari ezezaguna, BOL-006
- **Elkarrizketatzailea(k)**:
- **Erref**: BOL-006/002
- **Iraupena**: 0:00:22. **Hasi**: 00:00:47. **Bukatu**: 00:01:09
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Gaia(k)**:
Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroztera
- **Laburpena**: Lehen astoz joaten ziren baserriko produktuak saltzera.

Transkripzioa

- Esatejuan len se -neuk enejuan esautu baiña- selan astukin jutesien batzuek injjarra eruten, beste batzu' sagarra, al eben modun, buruen da astutan da... eurek oiñes, ortosik, al eben modun, euren txanpontxu'k etxe'a ekarta' da... Guk eskendun olakoik -etxua, eskenduan guk esau' da ikusi bes baiña entzunek dittuk orrek...

3. Ohiturak eta bizimodua

3.1. Artoa

- **Hizlaria(k)**: Hizlari ezezaguna, BOL-006
- **Elkarrizketatzailea(k)**:
- **Erref**: BOL-006/003
- **Iraupena**: 0:02:49. **Hasi**: 00:01:09. **Bukatu**: 00:03:58
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
Baserría » Baserriko lanak » Errota
Baserría » Baserriko lanak » Artoa
Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- **Laburpena**: Artoa baserrietan elikagai garrantzitsua zen. Artoan ereiteko eta batzeko prozesua azaltzen du. Errotaria "zorruen mendi" zeritzonarekin gelditzen zen, ehotzeko eramandako zati batekin. Prozesua bukatzerakoan taloak eta morokilak egiten zituzten.

Transkripzioa

- Ba... len emengo jatekue esko baserrixen izetxesan artue. Oiñ ogixe izeten dan lez, artue, se esuan ogirik eoten ta ogixe artzen basan be, ba, garixe artzen basan be saldu ein biar diru pixkat artzeko ta artue jan biar etxien. Da biar asko ein biar artuari. Maitzi'n erein, gero or, bagallien asitxe pixkat jorratu; gero indarra batu, se sasotan eingo suan ba? Santa Eujeniako aldien, ba... garagarrille... ez, iraillien, iraille; gero, urrixen artue batu. Gero batzuk ganbaran bota solte ta beste batzuk malutetxuas lotu te esei. A be eiñ eiñbizuan, e? Pentzau selako biarra san... barrerik es eiñ! Gero, siketikuen, ba, neguen otz eitxeuanin, garandu, bana banan, artu bata bestias sokorrak eta rraa-rraa garandu. Gero siketijuen ondo, se bustixe erutebaban errota' esuan arto gosue eitxen da... talue arrotu es da... a ondo siketute gero errota'. Da errotan, ba pixkat kentzejuan errotarixek sorruan alde se a' pe biarra debaide esin leixean eiñ de... estok aizen ori? Diru` etxuan da, ba, «sorruen mendi» esatejakona kentzejakuan, apurtxu bat, euneko onenbeste... errotarixe fiñe basan; basan tranposotxu, ba, pixkat ostu. Ba! orrek olantxe sitxuan... Da gero, ba, talu eitxe zuan: ipini ure irakitxen, gatza bota pixkat, da maixan ganien edo ontzixen baiña maixa ganien, geixenetan e? Botatezuan urune, ein erdixen zulotxue da ur berue bota ara da ondo ibili. Zemat eta geixa ibili gozuau!

Gero jo politxo politxo -ez pentzau edozelan, e- biribil biribil talue eiñ da pagie su ederra einde ipini da... a txapela lez arrotu biar ezetejuan e? beko suten. Ordun etxeun ongo kontuik! de beko suten. BALA! buelta emon da gero an prasan ipuni parrillak da igul amar ume ta be armosu emoteko amak ta arek epeletan eukitxe, arek katilluta' emon. Aitxek bexek jatzi, da esnie ipini galderean egosten an... tximinixako laatzien (ik estok esautu ori, a! orrek esautzeko baserrire jun bisuan morro... da morro krixedak ogi jan

baik koitxaduek...) barreik eseik eiñ, e? au geuri barren eixera etorride!... Morokillek biar gogortxuao eukitejok. A ipintxesuan, ordun esauat, latzi'n eseiz ontzixe, ipini uras an, baiña ur beruai, e? bota urune da arek pelotak eiñ estaitxesan eraiñ jjeraiñ jjeraiñ, gogor -izerdixe atea bear isetezuan a eitzeko, morokille eitzeko- da morokille ondo egositxe gero... a bai sosue jateko! gustetejakonentzako baiña ni gastetan janda naoles arto asko on etxuat nai, es morokillik ez taloik.

4. Politika

4.1. Gerra denbora

- **Hizlaria(k)**: Hizlari ezezaguna, BOL-006
- **Elkarrizketatzailea(k)**:
- **Erref**: BOL-006/004
- **Iraupena**: 0:01:02. **Hasi**: 00:03:58. **Bukatu**: 00:05:00
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Gaia(k)**:
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- **Laburpena**: Gerra sasoian, eskolak zarratu zituzten; hori dela eta, 10 urterekin eskolara joateari utzi zion. Jende asko neskame joaten zen etxean gose izanez gero.

Transkripzioa

-Ba, gerra denporan, eskolan, ba, etxuan emen eskolaik, sarratu sitxuan eskolak, da amar urtas urten eibier. Da etxien, erdi kale erdi baserri, de gosik egongo espagiñe baserreri urten biar, krixeda. Da krixeda jun de an, ba, danak einbier: umik sainju, ardixek sainju... al sana. Da, denpora txarra baeun be, artu ardixek da basora da... se eingo nejuan, ba, amar urtas. Kaltzagiñen: kaltzetorratza galdu, errenmendatu biar bera topetan, a eiñ barik esin etxe'a jun; gero, urrango igul an goixen mendixen, billotza igaul ardixek, da artik a billotz koitxaue busti bustixe ta illuntzin, gaba joko espaban, ariñ etxa' ardixek ondoik si'la. Orrek pasaute gasak gerra denporan... gerri geutzako be latza isen suan e? Es pentzau. .. Guk bonbardeoik, jankuari eskerrak, es genduan euki, baiña geuretxuek pasaute gasak geu be.

Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

1. Espainiako bandera mezan (BOL-010/001)

Derrigorra izaten zen mezetara joatea. Bolibarko jaietan, gainera, udaletxeko karguak meza nagusira joaten ziren eta Espainiako bandera eramaten zuten mezan ateratzeko.

2. Abadeei errespetu handia (BOL-010/002)

Dotrina Don Andres abadearekin ikasten zuten, euskaraz. Behin, abadeak jo egin zuen Klaudio bere galderari oker erantzutearren. "Jaune" esaten zioten

abadeari eta eskuan muin egiten zioten kofesatzera joaten zirenean. Abadeak galdera asko egiten zizkien, batez ere, bikote kontuen gainean.

3. Ave Marietako kanpaiak orduko neskak etxera (BOL-010/003)

Ave Marietako kanpaiak entzun orduko erromeriatik etxera joan behar izaten zuten neskek. Berandutuz gero, abadeak pulpitutik agiraka egiten zien. Mutilak askeagoak ziren.

4. Sermoi ezberinak pobreentzat eta aberatsentzat (BOL-010/004)

Garizumako domeketan, arratsaldea elizan ematen zuten gurutzetako estazioak egiten. Misioak ere egiten zituzten sasoi horretan, kanpoko fraideekin. Xemeinen, goizean pobreentzako meza esaten zuten eta eguerdian aberatsentzat. Pobreei aberatsak infernura joango zirela esaten zien sermoian eta aberatsei pobreak joango zirela.

5. Barikuetan okela jatea debekatuta (BOL-010/005)

Barikuetan bijilia egin behar izaten zen, baina abadeari bulda ordainduz gero barkatu egiten zieten. Hala ere, Bariku Santu egunean okela jatea bekatu mortala zen. Egun horretan, antxoak jaten zituzten. Bolibarko etxe batekoak ez ziren inoiz mezara joaten, komunistak zirela esaten zuten.

6. Hiletak diruaren arabekoak (BOL-010/006)

Hiru hileta klase zeuden, familiak ordaintzen zuenaren arabekoak. Abadeak ezberdin janzten ziren bakoitzean. Don Ramon abadea Bolibarrera heldu zenean, hileta guztiak berdindu zituen.

7. Jaio eta hil etxean (BOL-010/007)

Etxean hiltzen zen jendea eta bertan gaubela egiten zuten gorpuarekin. Askok mozkortu egiten ziren, gaubeletan koñaka eta ardoa edaten zen eta. Jaio ere etxean egiten ziren gehienak. Hamar urte zituela, anaia gazteena etxean jaio zela gogoratzen du Klaudiok, berak konfirmazioa egin zuen egun berean.

8. Hildakoa bidezorretatik elizara (BOL-010/008)

Hildakoari egurrezko kaxa egiten zioten eta lutozko oihal beltza gainean josi. Lepoan eramaten zuten gorpua elizara eta kanposantura. Bidezorra esaten zieten gorpua eramateko erabiltzen ziren bideei. Antzina, Mendarotik ere eramaten zituzten hildakoak Ziortzara. Pertsona hiltzeko zegoenean, abadea etortzen zitzaion untzioa ematera. Abadea pasatzen zenean, herritarrak belaunikatu egiten ziren.

9. Arrosarioa egunero eta mezara domekero (BOL-010/010)

Gauero errezatzen zuten arrosarioa, normalean bost misteriokoa, baina hamarrekoa eta hamabostekoa ere bazegoen. Domeka goiz guztietan mezara joaten ziren eta arratsaldean elizakora. Familiakoek sepultura jartzen zuten hildakoagatik: oihal beltza eta kandela. Elizara beltz jantzita joaten ziren, lutoz, eta andre guztiek mantelina eraman behar izaten zuten.

10. Hil kanpaiak eta mezak (BOL-010/011)

Baten bat hiltzen zenean, herriko kanpaiak jotzen zituzten eta horrela enteratzen ziren gainontzeko herritarrak. Xemeinen ere jotzen dituzte hil-kanpaiak orain. Hiru meza egiten dira ('hirurrenak') eta gero olata-meza ('urten-mezie').

11. Distantzia guztiak oinez egiten zituzten (BOL-010/013)

Gehiena oinez egiten zuten lehen, baina bizikletak ere bazeuden. Ama Bolibartik Durangora, Eibarrera eta Ondarroara joaten zen astoarekin sagarrak-eta saltzera. Txahalak ere oinez eroaten ziren inguruko herrietako hiltegieta. Hala ere, Markinan bertan ere egon zen hiltegia lehen. Basora ere oinez joaten ziren ganaduak uztartuta, normalean Pilarica egunean irak batzera.

12. Simaurra sororako (BOL-010/014)

Aitak irak batzen zituen basoan, gero ganaduen azpietara botatzeko eta simaurra egiteko. Simaurra soroa erein aurretik botatzen zen, abuztuan eta maiatzetan. Gariari ez zioten simaurrik botatzen, goldearekin presatzen zuten lurra. Gero, igitaiarekin moztzen zuten eta eskuz jo behar izaten zuten. Gerraostean, batzen zuten gariaren zati bat entregatu egin behar izaten zuten.

13. Artoa labean ihartu errotara eraman aurretik (BOL-010/015)

Artoa labean ihartzen zuten, garandu eta errotara eroaten zuten irina egiteko. Taloak eta morokila egiten zituzten arto-irinarekin. Labeko sua sagarrak erretzeko ere aprobetxatzen zuten, sukaldean beheko sua baino ez zeukaten eta. Goserik ez dute pasatu baserrian, txerriak eta ortuariak edukitzen zituzten eta.

14. Olio eta naranjak estimatuak zituzten (BOL-010/017)

Klaudio gaztea zenean ehun pezetako prezioa zeukan olio litroak. Horregatik, txerriaren koipea erabiltzen zuten sukaldatzeko. Laranjak ere estimatuak ziren lehen eta aititak laranja ematen zien ura beheko iturritik ekartzen zutenean.

15. Jateko bereziak: garbantzuak, oiloa eta arroz-esnea (BOL-010/018)

Ettxeko txahala hiltzen zutenean, gatzetan sartzen zuten okela eta zezina egiten zuten. Gero, lapikora sartzeko erabiltzen zuten edo tortilla egiteko. Etxean hasten zituzten oilaskoak saldu egiten zituzten, gutxitan izaten ziren etxean jateko. Jaietan, esaterako, garbantzuak, oiloa eta arroz-esnea jaten zituzten.

16. Pospolinak eta erbiak gari artean (BOL-010/020)

Tomatea arto artean landatzen zuten eta ez zuten botika bota behar izaten. Garia ereiten zuten lekuan sekula-belarra jaiotzen zen eta bertan pospolinak eta erbiak egoten ziren. Erbi-kumea harrapatu egiten zituzten, hasi eta gero jan. Txori-kumeak ere harrapatu eta jan egiten zituzten.

17. Errekan arrantza ugari (BOL-010/021)

Errekan karramarroak, ezkailuak, amuarrainak eta aingirak harrapatzen zituzten. Ezkailuak gauez harrapatzen zituzten. Behin ezkutatu egin behar izan ziren guardia zibilek ez ikusteko.

18. Mutikotako jolasak eta gaiztakeriak (BOL-010/022)

Bidean "txirringola" hartu eta jolasten zuten. Intxaurrak jaurtitzen ere jolasten zuten mutikoek, zeinek urrunago bota. Inoiz, intxaurra hutsitu eta lurrarekin bete izan dute etxekoei gaiztakeria egiteko. Gerizei adarrak mozten ere ibiltzen ziren mutikotan.

19. Mutilak tabernara erromeria ostean (BOL-010/025)

Domeketan erromeriara joaten ziren. Erromeria ostean neskari laguntzen joaten ziren. Mutilak, neska etxean utzi ostean, tabernara joaten ziren afaltzera eta kartetan jokatzera. Orduan, neskak ez ziren tabernara joaten eta ez zuten erretzen. Lehenengoz, neska japoniar bat ikusi zuen Klaudiok erretzen Markinan.

20. Arto-bizarrak eta aihenak erretzen (BOL-010/027)

Arto-bizarrak eta aihenak ere erretzen zituzten mutikotan. Askotan, arto orriak erabiltzen zituzten paper bezala. Ondarroan, esaterako, arto orriak erabiltzen zituzten amutzat. Aitak, tabakorria landatu zuen sasoi batean.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-11-11

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com